

Zuhaitza
euskarako elkarteak
deba

BERRIKETAN


Debako herri aldizkaria - 187. alea - 2014ko uztaila



**Lehia bizia VII. Itxasmila
Igeriketa Zeharkaldian**



ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS
Uzuri

RPS: 183/12

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206

Tel. faxa: 943 191 774

Hondartza, 10 - behea

20820 DEBA (Gipuzkoa)

mikeliturgintza@euskalnet.net

www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617

Eduarne: 669 895 619

HONDARTZA, 2 - BEHEA
20820 DEBA (GIPIZKOA)

Tel.: 943 192 127

Fax: 943 192 482

ase.deba@teletelne.es

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA
Lersundi 1. behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com



Lizaso Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA



oskarbi

Pintxoak

Ogitartekoak

Plater Konbinatuak

Lersundi Kalea, 9
Tel. 943 092 688 - 618 644 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



Ostolaza, 5
DEBA

Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Ostolaza Kalea 25.

20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 191 818



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

NORTH STREET ENGLISH

English Academy



Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba

Bordatxo

JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Exera eramateko jakiak - Ospakizunak

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376

Bazkariak: 13:00 / 14:00

Afariak: 20:00 / 23:00

Ifar kalea, 12 behea

20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea eta

kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka,

Ina Oartzabal, Migel M.Lekube

(Lutxo), Lukax Dorronsoro,

Koldo Aperribai, Izaro

Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite

Rodriguez, Gilen Garcia, Eider

Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane

Aizpurua, Haika Aizpurua,

Nekane Goikoetxea, Mattin

Urbietza, Mikel Aizpurua,

Debako Gazte Asanblada,

Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea:

Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia:

Ander Salegi

Publizitatea:

Joseba Escudero eta

Koldo Aperribai

Tlfnoa.: 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

Maketazioa:

Leire Rubio

Inprimategia:

Euskalinpri

Tirada:

1.400 ale

Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



HEGURITZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETXERAKO ARLOA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Vitoria-Gasteiz (Leizola 11)



Gipuzkoako Foru Aldundia

aurkibidea

04-05

Gutunak, Debako Gazte Asanbladaren iritzia ("Grebalariai asket!")...

06

ALBISTEAK

Praileaitz I haitzuloko indusketei buruzko liburua; Deba ibaia, pixka bat garbiago



07-09

Denon ahotsa

Itziar auzo udal bihurtzea onartu du Udalak. Hainbat iritzi jaso ditu Berriketan-ek



Ander Salegi

15

KRONIKA

Haurrak protagonista Zuhatzak Kolore Anitz taldearekin burututako udako ekimenetan



16-17

LABURRAK

I. Surfing Deba Festa ospatuko da abuztuan, Zuhatzak eta Mendatak antolatutako literatur lehiaketako irabazleak, VII. Itxasmila Zeharkaldia...



Ander Salegi

18

ZERBITZUAK



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Hausnarketa bat

Jarraian idatziko ditudan lerroekin ez dut hautsak gehiago harrotzeko asmorik, herria nahiko banatu baitu auzi honek. Hala ere, ekainaren 17an herriko plazan ikusi nuenak zer pentsatua eman zidan eta zuekin elkarbanatu nahi dut; ea zerbaitetarako balio duen.

Deban gazteok nahiko lotura estua dugu guztion artean, nahiko elkartasun dagoela esango nuke eta pozgarria da. Bestalde, beti iruditu izan zait gazteria festak mugitzen duela orokorrean (ez beti). Elkarguneak, hondartza, parranda dagoen edozein leku edota lokalak izan ohi dira.

Ekaineko aste horretan, baina, harrিতa geratu nintzen Debako gazteriak mobilizatzeko erakutsi zuen gaitasunarekin: bai Facebook-eko zenbait elkarrizketatan eta baita Debako plazan bildu zen jende gazte andanarekin ere, jarrera tinkoarekin, beren herria defendatzera, auzo udalaren auzia zela eta. Ez naiz sartuko hainbeste komentatu dugun gaiekin, nik nire iritzia daukat eta jada nahikoa entzun dugu batak bestearena.

Harritu nauena da, inoiz mugimendu, aldarri edota borroka baten parte izan ez den hainbeste jendek, itziartarren etorkizuna jokoan zegoenean, hain sutsuki beren ahotsa altxatu izana. Ezinezkoa egiten zait auzia beraien begiradatik ulerzea. Nola liteke langile edo ikasle diren heinean, giza-eskubide urraketak jasan dituzten bakoitzean, edo,

LOMCE/BOLOGNA bezalako planen aurrean erakutsitako neutraltasunez etxean geratu direnean, beraien etorkizunean igarri ere egingo ez duten kontu baten aurrean horrela altxatzea? Zerk eragin du halako ezinegona?

Benetan uste izango dute Itziar Auzo Udal izateak hainbeste eragingo duela beren eguneroko bizitzan? Ez al dute bada gehiago eragingo lan munduan egiten ari diren murrizketa guztiek? Ez al dute gehiago eragingo beren etorkizuneko haurrek jasan beharko dituzten hezkuntza erreformek? Ez al da benetan kaltegarriagoa izango beren gurasoek jubilatzean jasoko duten ordainsari eskasa? Edota osasun arloaren egoera? Edo hipoteka?

Non dago hor Debako gazteriaren borrokarako jarraera tinkoa? Non beren etorkizunerako bidean gauzak aldatzeko nahia?

Galdera asko sortu zizkidan ekainaren 17ak. Ez dut uste hau hemen idazteak ezer argituko duenik; baina, gonbidatu nahi dut Debako gazteria auzi honen inguruan pentsatzera; ea festa uneez gain, beste aldarrikapen batzuen atzean ere bilduta ikusten ditugun gure nahi eta indarrak, langile, ikasle, guraso edota jubilatatu garen heinean asko daukagu eta aldatzeko.

Nora Mugarza Salegui

Eskerrik asko, Deba!

2014ko ekainaren 8a egun berezia izan zen Euskal Herrian, 150.000 lagun inguruk eskutik helduta 123 kilometroko giza katea osatu genuen. Ideologia desberdinak elkarri eskutik emanda, 3 oinarririk batzen gintuztela: herri bat gara, erabakitze eskubidea dugu eta herritarron garaia da! Debatik ere 400 bat lagun joan ginen Bergara aldera, guri zegokigun 33 kilometrorra. Eguraldiak ere lagundu zuen eta egun ederra pasa genuen Bergara aldean. Batzuek, giza katea egin eta zuzenean hartu zuten Debarako bidea. Beste batzuek, Bergarako ekitaldia eta gero. Parranda zaleenok 20:00etan. Egun ederra igaro genuen, dudarik gabe.

Gure Esku Dago dinamikaren lantaldea giza katea baino 3 bat hilabete lehenago sortu zen eta eskerrak eman nahi

dizkizuegu, berriro ere, gurekin, giza katea egin ahal izateko, modu batean edo bestean parte hartu duzuen guztioi. Ekainaren 21ean giza katearen balorazioa egin genuen herri desberdinetako antolatzaileek.

Hau, ordea, ez da hasi besterik egin, inork ez dezala pentsatu bukatu denik. Guztia dugu egiteko, herriz herri bide honetan jarraitzeko nola antolatu erabaki behar dugu guztion artean, zein ekimen egingo ditugun, sortu dugun lan estilo alaiarekin jarraituz. Ez dago inolako bide orririk, orri zuri bat dugu aurrean eta hau denon artean bete behar dugu! Eta denok dugu lekua bertan. Gure berri izango duzue, anima zaitzte, ez ahaztu; gure esku dago!

Debako Gure Esku Dago



JUAN LUIS BAGLIETTO ARRIZABALAGA

**Zure irribarre eta maitasunak gure bihotzean dirau!
Bidaia on, maitia!
Lagunengandik sentitu dugun gertutasuna eta maitasuna bihotzez
eskertzen dugu.
Etxekoak.**





Debako Gazte Asanblada

GREBALARIAK ASKE!

2012ko ekainean lau gazte atxilotu zituzten Bilbon, martxoaren 29ko Greba Orokorrean gertatutako istilu batzuetan parte hartu izana leporatuz. Epaileen aurretik pasa ostean, epaiketaren zain, aske geratu ziren. Poliziak gertakariaren inguruan emandako bertsoan oinarrituta eta bestelako frogarik gabe, fiskaltzak 14 urteko espetxe zigorra eskatu zuen horietako hirurentzat.

leporatuta, aurpegia tapatuta zutenaren agrabantearekin. Hamaika ikusteko jaiok omen gara.

Jakin badakigu horrelako kolpe errepresiboek gazte mugimenduaren desaktibazioa dutela helburu. Baina, zorionez, herri honetako gazteriarekin jai dute.

Urtzi ezaguna da Debako Gazte Asanbladako kideon



Azken bi urteak amaierarik gabeko prozesu judizial korapilatsua izan dira lau grebalarik gazteentzat. Nahiz eta gazte horietako bi, Aitor eta Irantzu, absolbituta geratu, istorio luze honek ez du gustuko amaierarik izan; Urtzi eta Telle bi urte eta erdiko espetxe zigorrera kondenatu baitituzte. Hurrengo eguntan, epaitegiaren jakinarazpena jasotakoan 10 egun izango dituzte beren burua Basauriko espetxean aurkezteko.

Ez dugu uste kasualitatea denik Urtzik eta Tellek, gazte mugimenduan lan handia egiten duten gazteak izanda, konprometitua eta borrokalariak izanda, zentzurik gabeko zigor hau jaso izana.

Agerikoa da muntaia polizial honen bitartez ez direla desordenak edo erasoak zigortzen ari, beste eredu sozioekonomiko baten alde borrokatzen duen gazteria kriminalizatzen baizik. Bi urte eta erdiko espetxe zigorra, margoketa batzuk egitea

artean, behin edo behin deustuarrekin egin ditugun elkarrekin-tzak direla medio. Pasa den urteko jaietan ere txosnako txanda bat bete zigun, gazte konprometitu eta langilea denaren seinale.

Gure txoko hau baliatu nahiko genuke muntai polizial hau salatze eta baita gure babesa Deustu eta Bilboraino helarazteko ere. Jakin dezatela herri honetako gazteak ez garela besoak gurutzatuta geldituko, gure eskubideen alde lanean eta borrokan jarraituko dugula, eta, honelako kasuek ez digutela lanean eta borrokan jarraitzeko grina besterik ez pizten.

Urtzi eta Telle zuekin gaude, bihoakizue besarkada handi bana gipuzkoar kostaldeko herritxo honetatik bertaraino, eta, goizago edo beranduago, ikusiko dugu elkar.

Boterea borrokatu!
Grebalariek aske!

Alex Turrillas eta Lander Aznal

Katuak eta txakur bat

Goiz batean, katama jakintsu eta zentzudun bat paseatzen ari zen kalean bere bi katakume txikiek.

Bat-batean, txakur sendo bat agertu zen katuen aurrean. Katakumeak ikaratu egin ziren eta "miau, miau, miau" ahul bana atera zitzaizkien eztairik.

Txakur sendo hura zutik jarri zen eta mar-mar egin zuen: Grrrrr! Grrrrr! Grrrrr!

Katama tente jarri zen, oso lasai, txakurrari begietara begiratu zion eta ahoari eraginda (zera) esan zion: Grrrrr! Grrrrr! Grrrrr!

Txakurrak harriritu erantzun zion: Grrrrr! Grrrrr! Grrrrr!, eta poliki-poliki alde egin zuen.

Katama irribarretsu itzuli zen eta bere katakumeei esan zion: Orain, espero dut ulertuko duzuela ze inportantea den bigarren hizkuntza ikastea.



Praileaitz I haizuloko indusketei buruzko dibulgazio liburu bat aurkeztu du Xabier Peñalverrek

Azken urteotan Praileaitzeko indusketak zuzendu dituen Xabier Peñalver arkeologoak haizuloari buruzko liburu mardula idatzi du, hamabi urtetako indusketen emaitzak bilduta. Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratzen duen **Arkeologia** bildumako azken alea da, eta 2000 urtean hasi eta 2012 urtera arte Praileaitz I haizuloan egindako lan guztiaren bilketa eta informazio ordenatua eskaintzen du argitalpenak. Ia 300 orrialde eta 250 bat argazki eta ilustrazio ditu guztira, eta bi hizkuntzatan argitaratua dago: gaztelaniaz jatorrizkoa, Peñalverrek idatzia, eta Luis Mari Larrañagak itzulia euskarazkoa.

Praileaitzeko aurkikuntza eta irudiak biltzen dituen dibulgazio liburu hori ekainaren erdialdean aurkeztu zuen egileak; Donostian egin zen lehenbiziko aurkezpena, Foru Aldundiak antolatutako agerraldi batean, eta Deban burutu zen bigarrena (Kultur Elkartean). "Hamar urteko indusketen eta hainbat herrialdetako hogeitik gora taldek egindako laborategiko lanaren ondorioa da", laburbildu zuen Peñalverrek.



Indusketa berriak

Uztailaren 1etik 25era indusketak egiten dihardute berriz ere Praileaitz I kobazuloan. Debakoa ez da aurten Foru Aldundiak diruz lagunduko duen indusketa arkeologiko bakarra. Izan ere, Ikerne Badiola Kultura, Gazteria eta Kiroleko diputatuak jakinarazi du

150.000 euro banatuko dituela Aldundiak elkarte eta arkeologoek artean Gipuzkoako 35 indusketa lanetan hasi edo jarraitu dezaten.

Nolanahi ere, Praileaitzeko indusketak, duen garrantziagatik, "laguntza lerro berezia" du, "orain arte aurkitutakoaren arabera altxor gehien biltzen duen indusketa baita", Badiolak gogorarazi zuen bezala.

Neandertalgo gizakiaren tresnak aurkitu dira azken indusketetan, sarrerako eskuinaldeko galeria berrian. Pieza horien kokapenak beste nonbaitek etorri direla adierazten du. Aurten galeriaren zabalera osoa nolako den ikusi nahi dute; baita, topografiaren bidez, kanpoaldean beste sarrerarik ba ote den argitu ere.

Aldi berean, sarrera nagusiko eremuak norainoko sakonera duen ere aztertu nahi dute arkeologoek. Lau edo bost lagunez osatutako taldeak lan egingo du egunotan Praileaitz I haizuloan, eta, bertatik ateratako materialak garbitu eta aztertuko dituzte hurrengo hila-beteetan.

Deba ibaia garbitzen aritu dira aurten ere hamarnaka boluntario

Ekainaren 28an ibaiaren garbiketa egin zen Deban, laugarren urtez. Goizeko txandan 25 bat lagun elkartu ziren: gurasoak eta neska-mutikoak asko; eta, antolatzaileen azalpenak aditu ostean, ibai bazterrak garbitze-ari ekin zioten, Casacampoko hezegunean. Arratsaldean, berriz, piraguak hartuta, buru-belarri jardun zuten Deba Kayak Piraguismo elkarteko kideek, ibaia barrutik garbitzen.

Guztira 35 bat lagun aritu ziren, goiz eta arratsalde, ibaiko plastikoa eta bestelako hondakinak kentzen. Parte-hartzaile gehienak Debakoak ziren, baina baziren tartean Eibartik eta Ermutik hurbildutakoak ere.

Aurten, aurreko urteekin alderatuta, hondakin gutxiago bildu da eta antolatzaile zein boluntarioak pozik agertu dira.



Euren esanetan, "Deba ibaia inoiz baino garbiago dago. Aurreko urteetan egindako garbitze lanek izan dute eragina eta herritarren kontzientzia-zioa gehiagotuz doala esan genezake". Ibai bazterrean jasotako hondakinen artean, paseatzen dabilen jendeak lurrera botatzen dituen bilgarri, plastikoak eta latak batu ziren gehienbat.

Debegesak, Debako Udalak eta herriko hainbat elkartek elkarlanean antolatzen dute ibaia garbitzeko ekimen hau. Debegesaren bi proiektu uztartzen ditu, Ibai Lagun eta Gure Balioak egitasmoak, eta helburu bakarra dute: herritarrak sentsibilizatzea eta ingurumena zaindu eta errespetatzearen garrantziaz ohartaraztea. Debegesak eskerrak eman nahi dizkie parte-hartzaile guztiei.

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095

ITZIAR auzo udal bihurtzea onartu du Debako Udalak



Ander Salegi

Aurrera darrai Itziar auzo udal bihurtzeko prozesuak, pasa den ekainaren 17an Debako Udaltzako proposamen hori onartu baitzuen, aldeko zortzi botorekin eta aurkako bostekin. Itziarrek urrats bat gertuago du, hortaz, auzo udal izateko izendapena.

Hamahiru zinegotzietatik zortzik babestu zuten proposamena: Alternatibako bostek, Aralarrekoak, Itziar Herria Sortzen taldekoak eta EAko batek; aldiz, aurka bozkatu zuten EAJko hirurek, Ezker Anitzakoak eta EAko beste batek.

Ezohiko plenoak ikusmin handia sortu zuen. Batzar aretoa bete-betea egon zen: eserleku nahikorik ez zen izan guztientzat, jende ugari lurrean eserita edota zutik egon behar izan zen, eta bertaratutako herritar asko gelditu zen aretora sartu ezinik ere. Deigarria edo nabarmena, bestetik, hitzorduak komunikabideen artean piztu zuen arreta ere.

Foru Aldundiko arduradunen harrera

Bestetik, uztailaren hasieran, Martin Garitano Gipuzkoako diputatu nagusiak, Garbiñe Errekondo Foru Administrazioako diputatuak eta Arantza Ruiz de Larrinaga Herritarren Partaidetzarako zuzendariak harrera egin zieten Donostian Debako Udaleko ordezkariak. Maider Zubikarai alkatea, Iñigo Izagirre eta Andoni Aranberri zinegotziak izan ziren bertan eta harreraren ostean batzarra egin zuten guztiek, auzo udala sortze bidean hemendik aurrerako urratsak zein izango diren zehazteko.

Komunikabideen aurrean egindako adierazpenetan, Martin Garitanok "zoriondu" egin zituen Debako udal ordezkariak, orain arte bideratu duten prozesuagatik. Maider Zubikarai alkateak, bere aldetik, aitortu zuen "berretsi" egin nahi dutela udalaren erabakia, baina oraindik ez dutela erabaki zer bide hautatu horretarako.

Auzi honen inguruko hainbat iritzi artikulua jaso ditu *Berriketan*-ek. Lehenengoa hemen behean jaso dugu, eta plenoan baieztatu botoa eman zuten zinegotzi guztiek adostutako testua da. Hurrengo orrietan, berriz, Gora Deba Taldeak eta Denon Herriak dute hitza:

Ilusioz eta arduraz

Auzo udalaren eraketak hautsak harrotu ditu Deban, Itziarren eta baita gainontzeko auzoetan ere. Baina hau ez da harrizkoa, helburua izanik urteetako gatazka eta autogobernu eskaera bati irtenbide egoki eta orekatu bat bilatzea, aurreiritzi, mesfidantza eta iritzi kontrajarriak sortzen dituelako.

Urteak eman ditugu irtenbideak adosten, ikuspuntuak bateratzen eta, azkenean, udalbatzaren gehiengo zabal baten aldeko botoekin onartua izan da, nahiz eta, tamalez, proiektuak hasieran zuen erabateko adostasuna berrestea ezinezkoa izan den.

Aldaketak beti izaten dira kezka iturri, zaila izaten baita ematera goazen urratsak izango duen eragina neurtzea. Baina gure aldetik ez dugu inolako zalantzarik: urrats hau debarrentzat guztiz onuragarria izango da, auzoetako hurbilketa bat suposatzen duen heinean, kohesio soziala, kulturala eta politikoa ekarriko dizkiolako herriari. Ezinezkoa da herri kohesionatu bat eraikitzea auzo batzuk besteak beste bizkarra emanda bizi badira eta,

neurri batean, horixe gertatu da azken urteetan.

Auzoetatik autogobernu eskari argia zegoen aspalditik eta herri arduraz erantzuteko unea iritsia zela uste izan dugu, eta horretan saiatu gara buru-belarri, auzoetatik zegoen eskaria eta Debaren interes orokorrak uztartuko dituen proiektu bat landuz eta bultzatuz.

Herri baten eraikuntza orekatura ezinbestekoa da bere osotasunezko ikuspegi bat izatea, ezinezkoa baita herritarren zati bat baztertuz ezer ganorazkorik eraikitzea. Alde horretatik, AUZO-UDALA tresna egokia da auzotar guztien beharrak hobeto ezagutzeko eta elkarlanetik irtenbide egokienak bilatzeko.

AUZO-UDALA tresna bat dela esan dugu eta, gure iritziz, herritar guztiok erosoago sentitzeko, zeren, besteak beste, auzo bakoitzaren izaera eta nortasuna sendotzen lagunduko du; auzoetako bizitza soziala suspertzeko tresna egokia izango da; kudeaketaren hurbiltasunak administrazioaren eraginkortasuna bultzatzen du;

auzotarrek erabakietan parte-hartze zuzenagoa izango dute, baina horrek, aldi berean, herritarren erantzukizuna eta ardura eskatzen ditu.

Azken boladan asko hitz egin da AUZO-UDALARI buruz, batik bat, Debari eragin diezaiokeen kaltea azpimarratuz; baina, guk uste dugu guztiz alderantzizkoa izan behar duela; hau da, aukerak eskaintzen dituela, gatazka eta ulertezinak gaindituz, denok geure sentituko dugun udalerrri bat eraikitzeke zubiak sendotzen laguntzeko.

Ilusioz heltzen diogu eskuartearen dugun erronka berri honi eta, arduraz jokatuz, gure indar guztia jarriko dugu, antolakuntza berri honek elkarlanerako eskaintzen dituen aukerak baliatuz, elkarbizitza atseginago batera eramango gaituen udalerrri bat eraikitzeko.

Andoni Aranberri, Xabier Ziaran, Asier Oñederra, Mixel Torre, Mari Fran Agirregabiria, Iñigo Izagirre, Nekane Arakistain, Maider Zubikarai

Iruzurra

Joan den ekainaren 3an, Debako Udalak txosten juridikoa eskatu zion Diputazioari, Gipuzkoako Batzar Nagusien Foru-arau baten ordean Espainiako lege baten erabilera justifikatzeko. Itziarko Entitate Txikiaren osaketa 7 botoz onartu ahal izateko asmoz eta ez Foru-Arauek ezartzen dituen 9 botoen bidez. Diputazioak txosten bat igorri zuen Foru-arauaren aplikazioa galaziko lukeen Lege espainiarreko oinarritzko izaera agerian jarritz. Izan ere, txostena, ostiralean, hilaren 13an iritsi zen udaletxera, baina astelehenera arte, hilaren 16ko azken ordura arte, ezkutatu egin zitzaizen Udalak proposatzen zuen Itziarko Entitate Txikiarekin ados ez zeuden zinegotziei. Gaiari buruzko egia:

1.- Entitate Txiki baten osaketa onartzeko izateko kideen 2/3a eskatzen duen martxoaren 17ko 2/2003 Foru-Araua GUZTIZ INDARREAN DAGO ETA, BERAZ, BERA ZEN ETA DA APLIKATU BEHAR DENA.

2.- Aipaturiko araua erabili ezingo litzatekeen kasu bakarra, konstituzioaren aurkakoa deklaratzeko litzateke ETA HORI EGITEKO ESKUDUN BAKARRA AUZITEGI KONSTITUZIONALA DA. Hartarako, Udalak hartutako akordioa errekurritu beharko litzateke.

Itziarko Entitate Txikia ez balitz Foru-arauaren aplikazioaren ondorioz onartu, eta udalak planteatutakoaren aldeko errekurrituko balute, entitatea ez litzateke Auzitegi Konstituzionalaren sententzia ezagutu arte martxan jarriko.

3.- Lege espainiarraz (7 botoz) onartu denez, errekurtsoa Entitate Txikiarekin ados ez gaudenok egin behar dugu, baina auzitegiek kautelazko etenaldia erabaki ezean Entitatea martxan jarriko da.

Nolanahi ere, Entitate Txikiaren osaketaren alde bozkatu zuten 8 zinegotziek Auzitegi Konstituzionalako epaile izendatu dute beren burua eta guztiz indarrean dagoen Entitate Txikiaren osaketa arautzen duen Foru-araua Konstituzioaren aurkakotzat jo dute.

4.- Garbi utzi behar dugu Diputazioaren txostena ezin dela udal-espeditarearen parte izan, osoko bilkuraren deialdiaren egunean ez zegoelako bertan, indarrean dagoen araudiak eskatzen duen moduan.

5.- Egin dena iruzurra da, eta ez da gainera lehenengoa. Auzitegiek esan berri dute jada, udal-idazkariaren aholkularitzarekin alkateak era arbitrario eta ilegalean jokatu zuela, joan den maiatzaren 23ko Osoko Bilkura Bereziaren deialdian.

Gertatua argi dago. EAJ, EA eta Ezker Anitzako zinegotzien eskariz Debako alkatea Osoko Bilkura Berezia deitzera behartua izan zen. Zinegotzi eskatzaileek gai zerrendan tratatzeko bi puntu sartzea eskatu zuten: lehena aurkeztutako alegazioei erantzutea; bigarrena Entitate Txikiaren osaketari buruzko bidezkotasunari buruzko akordioa hartzea.

Dagoeneko azaldu dugun bezala, alkateak Osoko Bilkura deia maiatzaren 23rako egin zuen. Baina gai-zerrendako bigarren puntua ezabatu zuen, Ina

Aznal zinegotziak erabakiaren ilegaltasunaz behin eta berriro ohartarazi zuen arren. Ezin zen bestela izan eta auzitegiek arrazoia eman diote Ezker Anitzako zinegotziari.

Derrigorrezkoa zen moduan, gai-zerrendako bigarren puntu hori une horretan tratatu izan balitz, Diputazioaren txostenaren aitzakiarik gabe, Foru-Araua aplikatu eta Osoko Bilkurak atzera botako zuen Itziarko Entitate Txikiaren osaketa, beharrezkoak ziren 9 zinegotzien aldeko bozkak (bilkurako 2/3a) ez izanagatik.

6.- Horrelako prozedurekin ez da konponbiderik lortuko, arazo hau akordioaren eta adostasunaren bidez soilik ebatzi ahal izango da. Etorkezinean, ziurgabetasuna eta segurtasun-gabezia mantenduko dira. Erabili duten Estatuko Legearen arabera, 7 botoz onartu dena 7 botoz ere ken daiteke eta.

Ez da amaiera. Gora Deba Taldeak bere esku dagoen guztia egingo du egoera aldatzeko. Itziarko



Entitate Txikia eratzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak hartuko duen erabakia aztertuko dugu eta edukiaren arabera auzitegiara joko dugu Deba eta auzoetako interesak defendatzeko. Besteak beste, gure errekurtsoak jasoko dituen gaiak: Entitate Txikiari erantsitako lurralde eremua, bideragarritasun ekonomikoari buruzko ikerketa aski zorrotzik ez izatea, auzo guztietarako zerbitzu gehiago eta hobetoak ez bermatzea, emandako eskumenen legezketasuna edo legez kontrakoa izatea; Entitate Txikia eratzeko arrazoi historiko, ekonomiko eta soziokulturalik ez izatea, eta bere nortasun juridikoa. Hartarako, noski, herritar guztion laguntza beharko dugu. Publikoki eskertu nahi dizuegu orain arte sinaduren bitartez eta egin ditugun deialdietan parte hartuz eman diguzuen laguntza. Eskerrik asko eta eutsi goiari!

GORA DEBA TALDEA

Eta Itziar... Debako auzo udal izango da

Hala izango da, Deban zein Itziarren gehiengo zabala Auzo Udalaren alde dagoelako, urte askotako ezinkonpondua gainditu eta elkarbizitzazko etorkizuna bermatzen duelako, eta Debarentzat irtenbide interesgarria dela sinesten dugulako.

Ondo dator emandako urratsen funtsa gogora ekartzea:

- 1.- Foru Aldundiak Itziarko auzo udal prozesua abiatzeko agindu zion Debako Udalari aurreko legegintzaldian.
- 2.- Oinarrizko Txostena aho batez onartu zen, Debako Udaleko alderdi guztien aldeko bozkaz.
- 3.- Kontsulta tekniko eta juridiko guztiak aldekoak ditu; aurkako oharpenik ez dago.
- 4.- Prozesu administratibo txukuna izan da, esposizio publikoa, auzoz auzoko informazio bilera irekiak eta epeen kudeaketa zuzena.
- 5.- Herritarrek alegazioak aurkeztu dituzte eta guztiak



banaka aztertu ondoren udalbatzaren berrespena jasoak kontuan hartu dira txostenean.

- 6.- Juridikoki erakutsi da balizko segregazio asmo batekiko Auzo Udalaren prozesua ez dela eraginkorra, zerotik abiatu beharko litzatekeela edozein kasutan.
- 7.- Barnean hartzen dituen auzoek aldeko jarrera biribila adierazi dute herri-galdeketa bitartez.
- 8.- Udalbatzaren gehiengo absolutuaren babesaz behin betiko txostenarekin aurrera egitea erabaki du Udal Gobernuak.
- 9.- Foru Aldundiak ere begi onez jo du Auzo Udal berria eta legegileek ez diote oker teknikorik antzeman, ez Udalean ez Foru Aldundian.

Zilegitasun hain sendoa ikusita Auzo Udalaren prozesuari bide eman besterik ez zegokion Debako Udalari, behin horraino iritsita atzerabiderik ez zegoelako. Betebehar hori ahalbideratzeko esparru legal bat edo bestea aplikatzea jurisprudentzia kontua da, eta soberan

zaizkio interpretazio politikoak. Gure ustez herritarrekiko konpromiso morala dago inkoherentzia sinbolikoen gaineratik, halakorik baldin balitz. Ulertzekoa da prozedurazko tramiteak azken orduan eta halamoduz egin izanarekiko haserrea, baina legediaren ustezko 'kolorean' oinarritutako salaketa oportunistek erakusten dute bestelako heldulekurik eza.

Auzo udala bai, baina 'denon artean adostutakoa' exijitzen jarraitzen du hainbatek, orain artekoak adostasun nahikorik ez balu bezala. Zorionekoa litzateke maila are zabalagoa, Debako Udalean gutxienez 8 bozka eta Itziarko parte-hartzearen %95a gaindituko lukeena; halakoaren jabe balitz inor, jar beza proposamena mahai gainean. Bestela, akordio zabalaren ordeztu, beto eskubidea erreklamatzeko ari dela ondorioztatuko dugu. Beto eskubidea, ez akordioa erdiesteko, orain arte egindako ibilbide neketsua zapuzteko baizik.

Iruzurra? Arrazoizko irizpide hauek kontuan hartuta benetako iruzurra litzateke Debako Udalak Auzo Udalari bidea ez ematea. Badirudi hori nahiago lukeela zenbaitek, dena berriro hastera Rajoyren udal lege berriari esker prozesua ezerezean geratzeko. Iruzuraren leloarekin datorrenak argudio sinesgarrien gabezia adierazten du. Irregularitasunik balitz hitz egin dezala epaileak baina ez herritarrek asaldatu.

Sakoneko helburutzat Debako Udal Gobernuak kolokan jartzea dutenek jarraituko dute Auzo Udalaren afera trikimailu gisa instrumentalizatuz bazterrak nahasten. Kontu sensiblea da eta mamuak zabalduz erraz xaxatzen da herritarren kontserbazio sena, "ezer gabe lagako gaituzte" eta halako tremendismoak. Baina horretan dabiltzan kausa ez da Auzo Udala, Debako aginte politikoa baizik.

"Kendu diezaiegun moztorra" titular itsusia egokitu zitzaigun *Berriketan*-en azkeneko alean. Denon Herriaren kontra jaurtitako faltsukeriak desmuntatzeko tarte nahikorik ez da orri honetan, eta ez gatoz okasio bila. Bakarrik esan, akusazio larriak frogatu eta argudioz osatu behar direla, bestela propaganda merketzat har ditzake irakurleak. Kafetegiko esamesen etorria ez da eta nahikoa kritika serioa eraikitzeko.

Zalaparta gehiegi sortu da, gauzak bere onetik ateratu direlako. Denborarekin normaltzen joan behar luke, Auzo Udalak bere bidea egingo du eta pixkanaka aldarte berriaren kokatuz joango gara. Behingoan ohar garatu, esan izan dugun moduan, autogobernu apal eta mugatu bat besterik ez dela, auzotarrei zuzenean eragiten dizkieten alorrak hobetzeko baliatuko dena. Lurraldetasun zatiketarik ez dela, are gutxiago kalterik Debako egunerokotasunean.

DENON HERRIA

Mendata ikastetxeko ikasleek amodiozko gutunak idatzi dituzte aurten ere. Horietako pare bat bildu nahi izan ditu *Berriketan* aldizkariak ale honetan, zuek guztiok gazteen lanak irakurtzeko aukera izan dezazuen.



GAIZKA ALDALUR



JANIRE SALEGI

Kaixo, maitea:

Ostiral arratsaldean, kalean nenbilela, kafetegiko kristalari begira gelditu nintzen eta hantxe zeunden kafea hartzen, egunkariari begira. Ikusi zintudanean, bihotza gelditu zitzaidan eta tripan tximeletak banitu bezala sentitzen nintzen. Zure begiak zurea baino urdinagoak ziren eta zure eskuak, berriz, fin-finak. Ez zinen ohartu han nengoela eta kafetegian sartu nintzen lotsa-lotsa eginda. Kafesne bat hartu eta zure alboko mahaian eseri nintzen egunkari batez nire aurpegia estaltzen nuela.

Elkarrekin geunden txiki-txikitatik, baina unibertsitatean hasi ginenetik, jada ez genuen elkar ikusten. Zutaz maiteminduta nengoen aspalditik, baina lotsaren erruz ez nintzen inoiz ausartu nire sentimenduak adieraztera. Kafetegian, gauza bera gertatu zen.

Hamar minutu pasa nituen zuri begira eta orduan, ospa egiteko nintzela, deitu egin ninduzun. Gorri-gorri jarri nintzen, baina arnasa ondo hartu eta zure irribarreak poztu egin ninduen. Mahaian esertzeko eskatu zenidan eta nik pozik onartu nuen. Laster, hizketaldi bikaina eduki genuen aspaldiko kontuez, ikasketez, lagunez, gure harremanez... Bikotekiderik ez zenuela kontatu zenidan eta orain dela gutxi moztu zenuela mutil atzerritar batekin. Nabaritzen zen oraindik minduta zeundela eta mutil hartaz ahazteko aholkatu nizun.

Orduan, negarrez hasi zinen eta une apropo sa zela konturatu nintzen. Ezezko baten beldur nintzen, baina ezin nuen gehiago itxaron. Nire bizitzako esaldirik garrantzitsuena esatera nindoala, telefonoaren hotsa entzun nuen. Berak barkamena eskatu eta joan egin behar zuela kontatu zidan. Amorratuta gelditu nintzen eta agurtu ondoren bakarrik gelditu nintzen kafetegian, triste.

Eta orain hemen nago zuri idazten, zure erantzunaren zain eta berriz elkar ikusiko dugun esperantzaz.

Agur bat,

Aimar

ZERGATIK ZAITUT HORREN MAITE?

Zure esku leunak ikutu nahi ditut,
 beste behin bada ere.
 Itsaso zabalaren koloreko zure begiei
 begira egon, gau eta egun.
 Zure muxu, laztan eta besarkada estuak
 jaso edozein momentutan.
 Zure irribarre eder hori ikusi.
 Gure bihotzak kate batekin lotu,
 eta kandadu batekin itxi.
 Goizero esnatu, nire buruari
 galdera bat egin,
 eta ilunabarra iritsi arte
 galdera hori bueltaka aritzen naiz:
 Zergatik zaitut horren maite?
 Galdera bezalaxe, erantzuna berdina:
 Ez dakit.
 Baina gaur zerbaitetaz ohartu naiz.
 Zu ikustean,
 sabelean sentitzen ditudan tximeletek,
 esaten didazun hitz bakoitzeko,
 nire bi begi txikien distirak,
 urrun zaudenean,
 nire masailen behera
 erortzen diren malko bustiek...
 Gauza guzti horiek, azalpen bat daukate,
 azalpen bakarra.
 Hala ematen duen arren,
 ez da filmetan soilik gertatzen,
 errealitatean ere bai.
 Bai... horixe da... hori...
 maitemindu egin naizela.
 Bai, maitemindu egin naiz.

Berriketan gaztea

2014ko uztailea
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrear Sortua.

Aldagela berriak Errota Zarren

Berriki inauguratu dira aldagela berriak Errota Zar futbol zelaian. Inaugurazio ekitaldian Amaiak Bateko taldeetako jokalariek egon ziren eta ondoren partidatxo batzuk jokatu zituzten taldeetako kideek. Gainera, lunch bat egon zen hara gerturatu zen jendearentzat.

Hainbat hilabetez egon dira lanean aldagela berriak eraikitzen. Aldagela berriek itxura ona dute, lehengoak baino handiagoak eta modernoagoak dira. Taberna berria ere egin dute. Gainera, itxuraz lehengo aldagelak bertan lagako dituzte jendeak erabili ditzan: dutzatzeko, aldatzeko...

Inaugurazioan Maider Zubikarai Debako alkatea egon zen, baita Gipuzkoako Diputazioko eta Gipuzkoako Futbol Federazioko ordezkariak ere.

Errota Zarreko aldagela berriez harro egon daitezke Amaiak Bat taldeko jokalariek, zuzendaritzako kideak eta zaleak. Julen Arufe kadete mailako jokalariek azaldu digunez, "lehengo aldagelak pixka bat zaharrak ziren eta arazoak izaten ziren. Orain oso pozik gaude, jada estreinatzeko gogoia ematen du". Aldagelak bost dira guztira -horietako bat epaileentzako- eta instalazioak asko hobetu dituzte orokorrean.



Denboraleak eragindako kalteak, konponduta

Denborale gogorrek sufritu ditugu aurten euskal kostaldean. Pare bat aldiz alerta gorrian egon gara eta Itxas-Gain tabernako Jon Antolinek esan digunez, ezustekoa izan zen itsasoak erakutsi zuen indarra: "Abisua eman ziguten, baina ez genuen hainbestekorik espero". Apurketa ugari izan ziren: "Kristalak apurto zituen urak eta kamara batzuk ere bai. Nahiko larriak izan ziren apurketak". Deban ere sufritu genuen egunkarrietan eta telebistan agertu zen hondamen hura, baina irudi haiek historia dira jadanik. Poliki-poliki konponduz joan dira kalteak, eta Itxas-Gain tabernako apurketak ere bai. "Leihoak aldatzea eta pertsianak jartzeta izan da lanik gogorrena", zehaztu du Antolinek. Aseguruak ondo portatu direla ere adierazi digu; zentzu horretan ez dauka inolako kezarik.



Debako hondartzako ostalariak esan digu dena normalizatuta dagoela uda garairako. "Larritasunez pixka bat estututa ibili gara, baina azkenean konpondu ditugu eta ondo atera da dena". Eguraldi onaren esperoan, udako denboraldi oparoa aurreikusten du; baina, aitortzen digunez, jakin badakite etorkizunean ere itsasoak beste haserrealdiren bat izan dezakeela.

EGILEAK: Alex Alonso, Unai Matias, Iñigo Egaña, Maite Aldabaldetregu eta Josu Arufe



ELKA RRIZ KETA



Julen Arufe eta Alex Martija:

“Gure jarraitzailerik leialenak gurasoak dira, baina jende asko etortzen da partida garrantzitsuak ikustera”

Alex Martija eta Julen Arufe Itziarko eta Debako Amaiak Bat taldeko aurrelariekin hitz egin dugu oraingoan, aurtengo futbol denboraldia hizketagai hartuta. Pozik daude lortutako emaitzarekin, 6. postuan geratu baitira azkenean. Denboraldiaren hasieran euren helburua mailari eustea zen eta 4. postuan egotea ere lortu dute urtean zehar.

Zein kategoriatan jokatzen duzue? Maila ona al dago?

Julen Arufe (J.A.): Ohorezko kadeteen mailan jokatzen dugu, eta maila ona da. Erreala, Tolosa eta Ordizia taldeak ere horixe daude, adibidez.

Alex Martija (A.M.): Ohorezko kadeteen maila oso maila ona da.

Nolako denboraldia izan duzue? Helburuak bete dituzue?

A.M.: Hasierako helburua kategoriaz ez jaitea zen. Ekipoa ondo jokatzen ari zenez, laugarren postua lortze ar geunden, baina azkenean beherakada bat izan genuen eta seigarren geratu gara.

Dendora asko eskaini diozue futbolari? Horrek ba al du

eraginik ikasketetan?

J.A.: Pixka bat bai. Astearte, ostegun eta ostiraletan entrenatzen dugu. 2 ordu izaten dira gutxi gorabehera. Beraz, ez dugu denbora askorik kentzen.

Jarraitzaile asko dituzue? Jendea joaten al da zuen partidak ikustera?

A.M.: Normalean, gehienak gurasoak dira. Baina partida garrantzitsuetan –Errealaren kontra eta abar jokatzean, adibidez–, jende asko joaten da ikustera.

Jarraitzaile “erradikalik” ba al duzue?

A.M.: Gurasoak izaten dira. Epailearen erabakien aurka egiten dute protesta.

Nolako talde giroa daukazue? Lehiakorrak zarete?

A.M.: Lehiakortasun gutxi ikusi dut aurtengo taldean, eta broma asko. Entrenatzaileak bronka asko bota dizkigu eta asko exijitu dugu, baina taldean giro ona izan da.

Datorren urtean jarraituko al duzue futbolean?

J.A.: Bai, noski! Urtero bezala!

A.M.: Baita nik ere!

AGUR IKASTURTEARI

Mendata ikastetxeko 4. mailako ikasleak egin ditugu protagonista oraingo honetan. Hona hemen egin dizkiegun galderak:

- 1.- Lau urteotan zein ikasturte egin zaizu gogorrena eta zailena? Zergatik?
- 2.- Datorren urtera begira, zer asmo duzu?
- 3.- Ba al duzu urduritasun edo kezkarik?
- 4.- Zein da lau urteotako oroitzapen onena? Eta txarrena?
- 5.- Zer botako duzu faltan ikastetxe honetatik?
- 6.- Antolatatu al duzue ikasturte bukaerako ospakizunik?



Xuban Loiarte:

- 1.- 4. kurtsoa egin zait gogorrena, azken urtea delako.
- 2.- Elgoibarrera noa batxilergoa egitera.
- 3.- Bai. Gaztelera dela eta.
- 4.- Ikasbidaia. Uretan egon ninteen orduan ikasten aritzea.
- 5.- Nire ikaskide batzuk.
- 6.- Gelako afaria.



Udane Oartzabal:

- 1.- 4. kurtsoa, lan gehiago egin behar delako.
- 2.- Elgoibarrera noa batxilergoa egitera.
- 3.- Ez.
- 4.- Onena ikasbidaia, eta txarrena ikasbidaia aurretik edukitako arazoak.
- 5.- Ikaskideak.
- 6.- Bai, afari bat.



Maite Fernandez:

- 1.- Hirugarrena, aurten ikasgai errazagoak aukeratu ditudalako.
- 2.- Elgoibarrera noa batxilergoa egitera.
- 3.- Bai. Hiru hizkuntzengatik.
- 4.- Onena ikasbidaia, eta ikasle eta irakasleekin edukitako harremana. Txarrena, betiko lagunak eta irakasleak banatzen hasiko garela.
- 5.- Betiko lagunak.
- 6.- Gelako afaria.



Alex Treku:

- 1.- 4. kurtsoa, gehiago ikasi behar delako.
- 2.- Elgoibarrera noa, batxilergoa egitera.
- 3.- Ez.
- 4.- Lagunak eta irakasleak; zein baino zein inozoagoak.
- 5.- Lagunak, eta Enrike eta Arrateren klaseak.
- 6.- Lagunekin afaria.



Iratz Fernandez:

- 1.- 4. maila, materia gehiena sartzan delako azterketetan.
- 2.- Elgoibarko batxilergora joatea eta matematika gehiago ez edukitzea.
- 3.- Ez.
- 4.- Onena eskola bukatzerakoan, eta txarrena eskola hasterakoan.
- 5.- Jolas-ordu luzeak.
- 6.- Klaseko afaria.



Maitane Morcillo:

- 1.- 4. maila, gehiago ikasi behar delako.
- 2.- Batxilergoa egingo dut Elgoibarren.
- 3.- Bai. Zailagoa dela esan didate.
- 4.- Onena ikasbidaia, eta txarrena azterketak.
- 5.- Jolas-orduak eta Zarautzera joango diren lagunak.
- 6.- Klaseko afaria.



Ane Feijoo:

- 1.- 4. kurtsoa, gehiago ikasi behar delako.
- 2.- Batxilergoa egingo dut Zarautzen.
- 3.- Bai.
- 4.- Onena ikasbidaia, eta txarrena azterketak.
- 5.- Elgoibarrera edo Mutrikura doazen lagunak.
- 6.- Klaseko afaria.



Julen Maza:

- 1.- 3. maila, niretzako zaila izan delako.
- 2.- Elgoibarrera noa, batxilergoa egitera.
- 3.- Ez.
- 4.- Onena ikasbidaia, eta txarrena kanporatua izan nintzela.
- 5.- Ezer ere ez.
- 6.- Klaseko afaria.

EUSKAL LITERATURAKO erreseinak

Prentsa taldeko ikasleen denbora-pasa atala aldatu nahi izan dugu oraingoan. Izan ere, Liburuz Blai taldeko ikaskideok erabaki dugu euskal literaturan irakurri izan ditugun gustuko liburuen errepasu bat egitea, udara honetan zuen irakurtzeko zaletasuna sustatu eta euskaraz irakurtzen goza dezazuen.




Izenburua: Ostegunak
Egilea: Jon Arretxe
Argitaletxea: Elkar
Diseinua: J. Felix Igartua; **Urtea:** 1997

Liburu honetan unibertitate giroan gertatzen diren bost ipuin agertzen dira. Bertan parranda, kaleko giroa, gaueko ligeak, ikasleen pisuetako elkarbizitza, ikasketak (edo ikasketa eza) eta antzeko gaiak agertzen dira. Liburu umoretsua, toallan etzanda erraz irakurtzekoa.



Izenburua: Lanbro arteko printzea
Egilea: Carlos Ruiz Zafón
Argitaletxea: Booket
Urtea: 1993

Carvertarren bizileku berria misterioz beterik dago. Bertan, Jacoben, lehen beraien etxean bizi izandako familian itota hil zen semearen presentzia suma daiteke oraindik. Hilketaren harekin lotutako gertaera bitxiak pertsonaia maltzur bat ezagutu ahala argitzen joango dira: Lanbro arteko printzea, edonori edozein gurari betetzeko gauza dena, baina prezio altu baten truke...



Izenburua: Irakasle alu bat
Egilea: Xabier Mendiguren
Argitaletxea: Elkar (Branka Saila)
Urtea: 1995

Kurtso berria hastear dago, eta ikasleak zein irakasle tokatuko zaien jakiteko irrikitan daude. Ezuste handia hartuko dute beraien Fisikako irakaslea zein den jakitean. Txintxeta du izena, eta inoiz izan duten irakaslerik zorrotzena eta gogorrena da. Zer egingo dute irakasle hartaz libratzeko?

Umorez beteriko liburua da, oso gomendagarria.



Izenburua: Larunbatean Bukowskin
Egilea: John Andueza
Argitaletxea: Elkar
Ilustratzailea: Lander Ayllon

Bilintx institutuan kurtsoa hastera doa, iraila heldu da. Institutuan, mota guztietako gazteak elkartu dira eta gauza asko gertatzen hasi dira dagoeneko. Gazteen artean Xato, Pipi eta abar dira xelebreenak eta bihurrienak Mikel eta Ugutz. Baina dena hain ondo doanean norbaitek nesken komunetan kamara bat ipini eta dena aldatuko da...



Izenburua: Ortzadarra sutan
Egilea: Fernando Morillo
Argitaletxea: Elkar; **Urtea:** 2002
Ilustratzailea: Juantxo Egaña

8 gazte, 4 neska eta 4 mutil. Donostiara joan ziren aste-buru pasa, bertan zenbait abentura pasatuz, lehen amodia ezagutzuz... Urte batzuen ondoren, Donostian gertatutakoaz hitz egiten dute, zer pentsatzen du bakoitzak esperientzia hartaz?

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TALETTA 2013-2014

Aitor Gonzalez	Maitte Aldabaldetrekua
Alex Martija	Alex Alonso
Unai Matias	Julen Aristi
Ekaitz Zubimendi	Josu Arufe
Kimetz Juaristi	Iñigo Egaña

Koordinatzailea: Aritz Meababasterretxea



HAURRAK PROTAGONISTA

Margoak, abestiak, jolasak... haurrak gustura ikusi genituen uztailaren 8ko arratsaldean Zuhatza Kolore Anitz aisialdi taldearen eskutik burututako ekimenean. Aldats pilotalekuan bildu genituen etxeko txikiak, eta zumardian aritu ziren adinez nagusiagoak. Hitzorduak emandakoa irudietan jaso dugu orrialde honetan.

Zuhatza Euskara Elkarteko kideok eskerrak eman nahi dizkiegu uda honetako ekimenak aurrera ateratzeko lanean dabiltzan guzti-guztiei. Aisialdiaz gozatzeko hamaika arrazoi eta mila aukera ditugulako, jarrai dezagun guztiok ilusioz lanean; herritik eta herriarentzako, euskaratik eta euskaraz!

IRUDIAK: ANDER SALEGI ETA ERREDAKZIO TALDEA

“Larrosa, udalekuek ematen digute guri poza, horia, lagun berriak dira gure oparia...”

Eguraldiak laguntzen ez duen arren, aurtengo udalekuetan ere koloreak airean ditugu! Martxan gara jada eta ezin kexa gaitzke, 120 hurrez osaturiko talde bikaina izan baitugu lehen txanda honetan Deban, eta 15 lagun Itziarren. Dagoeneko bigarren txanda ere abiatu dugu.

Ekainaren 30ean hasi ginen hurrekin, baina aurretik begirale taldeak lan paregabea egin duela aipatu beharra dago. Deba zein Itziarko 16 gaztek osatzen dugu aurtengo begirale taldea, eta koordinatzaile naizen aldetik zorionak eman nahi dizkiet egin duten lan guztiarengatik. Bide batez, Iban Zuritari ere eskerrak eman egin digun abesti puxkagatik eta baita Gorka Arrizabalagari ere, bere kolaborazio guztiarengatik.

Besterik gabe, mila esker izena eman duzuen guztioi eta, nola ez, gure kolorez betetako ametsak posible egiten ditu-

zuenoi. Beti gogotsu, “kolore artean mugituz, eskuak gora altxatuz, herri guztiari erakutsiz euskaraz egiten dugula hitz!!!!... Kolore anitz, Gora Kolore Anitz!”.

Kolore Anitzen zozketako saria 2. irabazleari dagokio, Susana Añon-i hain zuzen ere! Zorionak!!!!



Emili Sukia (Kolore Anitz)

I. Surfing Deba Festa antolatu dute Yakok eta Udalak abuztuaren 7tik 10era bitarte



Iaz antolatutako Yako Jaixa oinarri hartuta, aurten Debako Udalak eta Yako Debako Surf Eskolak elkarlanean antolatutako jaialdia ospatuko da abuztuaren 7tik 10a bitartean. Surfa izango du oinarri aurtengo festak; baina, Deba kirol ezberdinetarako eskaintzen duen aukera zabalaren berri ere eman nahi dute jaialdiaren bitartez.

Lau eguneko egitaraua izango du ekimenak eta antolatzaileek nabarmendu dutenez, "ohikoak ez diren kirol extremoak eta musika, dena doan, eskaintzen duen jaialdi bakarra izango da. Hau da gure berezitasuna, inguruan bakarrak egiten gaituena".

Jaialdia abuztuaren 7an (osteguna) abiatuko da, eta olatu handiak ardatz izango dituen "ZineSurf gaua" prestatu dute horretarako. Oier Bartolome debarra eta Axi Muniain zarauztarra izango dira protagonista nagusiak; bien artean aspaldian ezagututako "negu ikusgarrienaren" kronika egingo dute eta Axik Donostiako Surfilm festibal ezagunean aurkezturiko lanak ekarriko ditu Debara. Festa

Zumardiko karpan izango da.

"Slackline eguna" izango da abuztuaren 8a (ostirala). Flow Balance elkarteko kideak etorriko dira slackline kirolak eta haren modalitateak erakustera. Ekitaldia Debako zumardian egingo da eta zuhaitzetik zuhaitzera hainbat slackline lotuta, adin guztietako pertsoneri beren abilezia praktikan jartzeko aukera emango zaie. Festaren osagarri, herriko musikari eta musikazaleek girotuko dute ingurua. Kirol berriak, musika eta edari freskoak izango dira, beraz, iluntze horretarako osagaiak.

Abuztuaren 9an Yako Jaixa ospatuko da, iaz ekindako bidetik jarraituz baina egitarau zabalago bat eskainiz. Egunean zehar surf, stand-up paddle eta skate ikastaroak nahiz kirol horietan aritzeko ate irekiak izango dira. Besteak beste, stand-up paddle lasterketak izango dira ikusgai eta, eguerdian, Euskal Herri osoko lasterkari onenak izango dira Deba ibaian eta hondartzan prestatutako zirkuituan. Kanoa Hawaiarraren modalitate bereziak



ere ikusmina sortuko du egun horretan, eta gauean zumardian jarraituko du festak, Mamba Beat taldearen eta Trasteando Band taldearen musika emanaldien laguntzarekin.

Bukatzeko, abuztuaren 10ean (igandea) "Xtrem Eguna" egingo da. Igeri zeharkaldi ezberdinak antolatu dituzte Xtrem taldekoek, adin ezberdineko jendearentzat. Era berean, flyboard ikuskizuna ere egingo da.

Egitarau osoa aldizkari honen 18. orrialdean duzue ikusgai.

Zuhatzak eta Mendatak antolatutako literatur lehiaketak baditu irabazleak!



Aurten ere, Zuhatza Euskara Elkartek literatur lehiaketa antolatu du Mendata institutuko ikasleen artean, ikastetxearekin elkarlanean. Sari banaketa ekainaren 17an izan zen eta Zuhatzako kide Koldo Aperribai eta Iñaki Elosua bildu ziren ikasleekin. Beste behin ere, Mendatako liburutegian banatu ziren sariak.

Hona hemen aurtengo epaimahaiaren erabakia:

1. zikloan: narrazio generoan, Beñat Escuderoren lana



saritu dute. Olerkian, berriz, Ane Agirregabiriak lortu du saria.

2. zikloan: narrazioan hiru lan parekatuta geratu dira, eta euren artean banatu da saria: Mikel Elortza, Izaro Altzibar eta Malen Egaña. Olerkian, beste hiru lan saritu dituzte: Naiara Mantzisor, Paule Aranberri eta Julen Monasterio.

Zorionak eta eskerrik asko parte-hartzaile guztiei! Baita aurtengo epaimahaia osatu duten kideei ere! (*Oharra: lan sarituak *Berriketan*-ek kaleratuko ditu, abuztuko alean).

187 parte-hartzailek osatu dute VII. Itxasmila Igeriketa Zeharkaldia



Ander Salegi

Uztailaren 6an (igandea) jokatu zen Debako VII. Itxasmila Zeharkaldia. Hamaika urtetik beherako igerilariak 100 metroko zeharkaldia burutu behar izan zuten, 11-14 urte artekoak 500 metrokoa eta nagusiek, berriz, 1.852 metrokoa. Haize eta itsaso zakarrari aurre eginez, helduen kategorian guztira 187 lagunek lortu zuten zeharkaldia osatzea –tartean herriko hainbat igerilari zirela-. Pablo Etxeberria Arano (Azpeitia) nagusitu zen proban, ibilbidea 24 minutu eta 30 segundoan egin da; Aitzol Arrillaga izan zen bigarrena (00:24:54) eta Haigor Aranguren (00:27:33) hirugarren postuan sailkatu zen. Emakumezkoetan Nerea Murua zarauztarra izan zen lehena (00:29:30). Sailkapen nagusia www.kirolprobak.com atarian kontsulta daiteke.

Aurten ere, igeriketa probak Esklerosi Anitzaren Fundazioak bultzatutako "Busti Zaitetz" kanpainarekin bat egin du.

San Juanek utzitakoa, iruditan

Irudi politikak utzi dizkigute San Juanek aurten ere. Goiko bi irudiak bezperako suari dagozkio; Foruen plazako su ikusgarria eta bertan antzetzutako akelarreen lekuko ditugu.

Behean, berriz, Santa Katalinako ermitaren inguruan ekainaren 24an egindako bilkuraren argazkia duzue ikusgai ezkerrean. Urteroko meza ermitaren kanpoan egin zuen oraingoan Patxi Aizpitarte apaizak eta elizkizunaren ondoren, txorizoaz eta saldez gozatzeko aukera izan zuten bertaratutakoak.

Laugarren irudia bitxia edo ezohikoa bada behintzat, Uruguayko lagun batek arbolara igota ikurrina hartu zueneko unean ateratako irudia baita.



Ander Salegi



Ander Salegi



Martin Hernandez Beitiak bi domina lortu ditu Euskadiko Atletismo Txapelketan

Urrezko dominarekin bueltatu zen Martin Hernandez Beitia Gasteizen maiatzaren 24an jokaturako Eskolarteko Euskadiko Atletismo Txapelketatik. Jabalina jaurtiketan hartu zuen parte gazteak eta 36 metro eta 82 zentimetroko jaurtiketak eman zion urrea.

Debako gaztea Mintxeta Atletismo Taldeko (Elgoibar) kidea da. Kirolari fina da, modalitate ezberdinetan makina bat sari lortu dituena jada. Jabalina jaurtiketan ez ezik, adibidez, Gasteizen 150 metroko lasterketan ere parte hartu zuen egun berean. 4x80 metroko erreleboetako proban aritu zen, Gipuzkoa ordezkatuz, eta bigarren postuan sailkatu zen bere taldea, zilarrezko domina lortuta. Emaitza bikainak, dudarik gabe, gazteak lortutakoak! Zorionak!




Amaikak Batek denboraldia agurtu du

Urteroko batzar orokorra eta denboraldi bukaerako bazkari herrikoia egin zuen Amaikak Bat taldeak pasa den ekainaren 28an, Aldats frontoian.

Giro bikaina izan zuten hitzorduan, eta denboraldian zehar maila onena erakutsi duten jokalariei sariak ere banatu zizkieten.



Ander Salegi



Agenda

Uztailak 19, larunbata

-10:30. **II. Lasturko Mendi Lasterketa** (12 kilometroko ibilbidea). Izen-ematea: www.herrikrossa.com.

-**Galerna Festa** (hilaren 16tik 19ra), hondartzan (Gazte Asanblada).

Uztailak 22-26

-**Aste Internazionalista**, Debako Gaztetxean.

Uztailak 24, osteguna

-22:30. Zinea: "Asier eta biok", Kultur Elkarteko plazan.

Uztailak 25, ostirala

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

-22:00. Kontzertua: **Malatu**, plaza zaharrean (*Iturri ondoan*).

Uztailak 26, larunbata

-**Gipuzkoako Sokatira Txapelketa**, zumardian.

Abuztuak 2, larunbata

-**Merkatu Txikia**, estalitako pasealekuan. Goizean.

Abuztuak 2-6

-**Kopraixak** ospatuko dira Itziarren.

Abuztuak 7, osteguna

-20:00. **Debako XXXI. Udako Musikaldia**. Kontzertua: Miren Urbieta (sopranoa), Jose Ignacio Ansorena (txistua) eta Koro Sáenz (organista). Santa Maria elizan.

Erakusketak

-**Gonzalo Etxebarria** artista-
ren lanak ikusteko aukera
egongo da Elizako klaustroan,
uztailaren 5etik abuztuaren
31a bitartean.

-**Baroja Collet** artistaren era-
kusketa hartuko du Agirre

jauregiak, uztailaren 11tik
uztailaren 27ra.

-**Jesus Belaustegiren** zerami-
ka lanak ikusgai egongo dira
Agirre jauregiko erakusketa
gelan, abuztuaren 1etik 12ra
bitarte.

Kartel lehiaketa

-**San Rokeak 2014** Kartel
Lehiaketa: Jai Batzordeak herri-
ko jaietarako kartel lehiaketa
antolatu du. "Abuztuak 14tik
18ra. 2014 San Roke Jaiak
Deba" izenburua eraman

beharko dute lanek.

Uztailaren 15etik 20ra
bitartekoa izango da lanak aur-
kezteko epea. Informazio
gehiagorako: 943 19 28 40 edo
www.deba.net.

Dantza garaikide ikastaroak

-Uztailaren 21etik aurrera,
Kulunka Dantza Taldeak
dantza garaikide ikastaroak
eskainiko ditu (maila guz-
tiak).

Elene Bravo arituko
da irakasle lanetan.
Informazio gehiagorako,
deitu 664 066 000 telefono
zenbakira.

I. SURFING DEBA FESTA



-Abuztuak 7, osteguna: ZineSurf:

19:00. ZineSurf jaialdia karpan.

20:00-21:00. Samba D'Sanga.

23:00-00:00. Axi Muniain+Oier Bartolome+Negua
XXL Sariak.

00:00. DJ Rasla.

-Abuztuak 8, ostirala: Slackline Eguna:

16:00-19:00. Ikastaroak.

19:00-22:00. Erakustaldia eta txapelketa.

19:00etatik aurrera, musika zuzenean!

Abuztuak 9, larunbata. Yako Jaixa:

10:00-14:00. Stand-up ikastaroak doan.

12:00-14:00. Stand-up lasterketak.

12:00-19:00. Kanoa Hawaiiarra.

16:30-19:30. Surf+Skate ikastaroak doan.

20:00. Festa hasiera karpan.

23:00-03:00. Kontzertua: Trasteando
Band+Mamba Beat+DJa.

Abuztuak 10, igandea: Xtreme Eguna:

16:00. Flyboarda hondartzan.

17:00. Igeriketa probak ibaian.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **uztailak 25, 26, 27.**
abuztuak 4, 5, 6, 7.

Burgoa Zuazo: **uztailak 21, 22, 23, 24.**
abuztuak 8, 9, 10.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: uztailak 26
abuztuak 2
BURGOA ZUAZO: uztailak 19
abuztuak 9 eta 16

9:30 - 13:30

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº. 379

Higiezin Zerbiztuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlo.net

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



Hazirik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
tel.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com

Jari zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!



943 191 383
berriketan@zuhafza.com



www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

RAIKETAK S.L.

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorralak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

Sokagin Kalea, 2 behe - 20820 DEBA
943 029 186

MAZKUNE
FRUTA PRODUKATZA ETA ZABARTEGIA
1975etik zuekin!

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

LARRAMENDI
ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ekodenda,
dietaetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teka terapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresioak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

**AISIALDIAZ
GOZATZEKO
HAMAIKA ARRAZOI
ETA MILA AUKERA...**



**HERRITIK ETA
HERRIAREN TZAKO
EUSKARATIK ETA
EUSKARAZI!**